


Babeslea · Argitaratzailea
Patrocina · Edita

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Artistiko eta teknika zuzendaritza
Dirección artística y técnica

PANTA RHEI



Orain arte egin diren XIII edizioetan, TXOTXONGILOAK ARABAN Nazioarteko Erakusketak txotxongiloen eta ikusle guztientzako moduko objektu-antzerkien lurralde bihurtu du Araba.Udako Nazioarteko Erakusketa hau 2004az geroztik ari da egiten, eta 130.000 ikusle izan dira orain artekoemanaldiak ikusten eta txalotzen.Edizio bakoitzean estatuko nahiz nazioarteko txotxongilo-konpainiak ibiltzen dira Arabako Taldeetako herrietan barrena txotxongiloak duin bihurtuz askotariko teknika eta adierazpide garaikideen bidez.

XIV. TXOTXONGILOAK ARABANek hainbat Erakusketa eta Jaialditan aitortuak eta sarituak izan direneta nazioartean ezagunak diren 10 konpainia aurkeztuko ditu edizio honetan, hain zuzen ere, Madril, Gaztelaeta León, Andaluzia, Nafarroa eta Euskadiko konpainiak.Eskainiko dituzten 16 antzezlanetan txotxongiloa bere kode tradizionaletatik urrunduko da gainerako arte eszeniko garaikideekin nahasteko. Hala, letra larriz hitz egin ahal izango da txotxongiloaz zuzeneko musikarekin, keinu-antzezpenarekin, zirkuarekin edo arte plastikoekin konbinatuko den ikuskizunetan.

Erakusketa honek duen kalitate artistikoaz gain, bere garrantzi kulturalak Arte Eszenikoak Araban sustatzen laguntzen du eta askotariko unibertso eta istorioz betetzen du lurraldea bere pertsonaiekin, hau da, edozein gizakik izan ditzakeen emozio eta sentimenduz betetako txotxongiloekin.

Ikusle estimatuok, goza ezazue 2017ko XIV.TXOTXONGILOAK ARABANekin.

# IKUSKIZUNEN SINOPSIA / SINOPSIS ESPECTÁCULOS

## TXOTXONGILOAK ARABAN 2017



## NUMENES

Yarleku konpainiarena

## NUMENES

de la compañía Yarleku

Inguru menditsu batetan, Lambro eta Leka, bi galtzagorri bihurri, ez dakite nor duten ama. Letxua, kasu honetan txori batez irudikatua, zalantza hori ebazten lagunduko dituela baieztatzen die, aldiz okertu eta galdu baino ez ditu egiten. Bidean, gure protagonistak, pasarte dibertigarrietan, pertsonai mitologiko desberdinekin egingo dute topo: Basajaun, Lamia, sorgina, Jentilak...





## ASTOKILLO
Panta Rhei konpainiarena

## ASTOKILLO
de la compañía Panta Rhei



Maese Zambulón, Madame Zoritak eta Rigoletto astoak ikuskizunaz gozatzera gonbidatzen gaituzte. Maese eta Madamen helburua, "Zambulón asto esnea" saltzea da, eta horretarako Rigoletto erabiliko dute jendea erakartzeko.

Baina ez dute kontutan izan zenbateraino izan daitekeen egoskorra asto gazte baten izaera. Jakinmin handiko izakia da Rigoletto, eta guztia ezagutu nahiko du.

## ORGANIK
Ameztu konpainiarena

## ORGANIK
de la compañía Ameztu



Natural jaunak frutak eta berdurak bizidun bihurtzeko eta haiei ahotsa emateko ahalmena azalduko digu.

Landare-mundua duindu eta goretsi nahi du gizakien egoismoaren tiraniaren aurrean.

Bere alegiazko unibertsoan, berdurek dantza egiten dute, sufritu egiten dute, maitemindu egiten dira, hipoteka ordaintzen dute, amets egiten dute eta harmoniazko mundua aldarrikatzen dute.

Abentura zentzugabe horiek bizitza naturalari egiten zaion kantu alaia eratzen dute.

## KONTUKANTARI
Laenananaranja konpainiarena

## KONTUKANTARI
de la compañía Laenananaranja

Kontukantarik gogoan dituguan kantuak bildu, eta beste erritmo batzuetara aldatzen ditu: reggae, rap edo bluesera.

Euskarazko hamar haur-kantuen kontzertua txotxongiloekin. Zerrendan kantu hauek daude: Txiki Txikia, Txakur bat, Kanuto, Txan Txibiri, Ran Rober Ran, Sorgina Pirulina, Baga Biga Higa, Ixil Ixilik, Itxasontzi baten, Ez goaz lanera eta Gora ta gora beti. Aukera ona musikaz eta txotxongiloen mundu magikoaz familiarekin gozatzeko.



## MARKELIÑE
Zoo Zoom konpainiarena

## MARKELIÑE
de la compañía Zoo Zoom





ZOOZOOMek, familia osoari zuzendutako kaleko ikuskizunaz gozatzeko beste era bat proposatzen digu, partaidea, dibertigarria, interaktiboa, harrigarria.Ikuskizunean, material xumeak erabiliz eskuz eraikitako animaliaz osatutako parke zoologiko bitxia sortuko dugu. Partaideak erraz, azkar eta irudimenez beterik, jirafan, elefantean, karramarroan, dinosauroan, bihurtuko dira.

# VIOLETA
Axioma konpainiarena
# VIOLETA
de la compañía Axioma







Hazi batetik lore gisa jaio den neska baten tamainarekin, arrazoimena duten – eta erabiltzen duten- animaliekin, eta "zergatien" zerrenda amaigabe batekin jolastuz, izaki fantastiko eta animalia bitxiekin elkartzera eramango gaituen bidaiari ekingo diogu.

Gure protagonista, Violeta, erantzun bila ibiliko da, eta berarentzat ezezaguna zen mundu bat ezagutuko du eta bere barneko mundua ere ulertuko du.

# GARBANCITO EN LA BARRIGA DEL BUEY
La Gotera de Lazotea konpainiarena
# GARBANCITO EN LA BARRIGA DEL BUEY
de la compañía La Gotera de Lazotea

Ipuin-kontalari batek litxarreriak saldu behar ditu bere istorioak kontatzeko entzuleak erakarri ahal izateko.

Barbantxoren ipuinarekin liluratuta – ipuinak, nolabait, itxaropena ematen dio hutsala iruditzen zaion bere existentziari-, jakin-min ikaragarria sentitzen du idiaren sabelean Barbantxori gerta zitzaiokeenagatik.



